



[01]

Gure lehendakaria

“Gure ingurunearen ongizatea elikatzea” helburuarekiko konpromisoari eusten diogu, balioa ematen duten hainbat ekintzaren bidez, hala nola: kalitatezko produktuak eskaintzea, tokiko ekonomia babestea enplegua sortuz, eta kontsumitzaileei elikaduran laguntzea.

Gure ingurunearen ongizatea elikatzen dugu

Azken urteotan, elikaduraren sektorea hainbat erronkari aurre egiten ari zaie, testuinguru geopolitiko konplexu batek eta kontsumo ohituren aldaketek markatuta. Hala ere, zailtasunen aurrean aukera berriak sortzen dira eta, Uvescon, tokikoarekin eta pertsonen zerbitzuarekin dugun konpromisoan urratsak emateko unea da, berrikuntzaren eta teknologiaren eskutik. Horri esker, gure eredua hobetzen jarraitu ahal izango dugu, gure jardueraren fokua gure bezeroengan, gure ekipoa eta gure ingurunean jarrita.

Gure eredua eremu eta herri berrietara hurbildu dugu, establezimendu berriak sartuz eta enplegua sortuz; prestakuntzan dugun konpromisoari eusten diogu -7.000 profesional baino gehiagoko lantaldea gara-, eta berrikuntza eta iraunkortasuna jartzen ditugu gure estrategiaren oinarri gisa. Horrela, modu sendo eta aitzindarian, elikagaien alferrik galtzearen murrizketari helden ari gara -elikaduraren sektorean funtsezko erronka-, teknologia berriak erabiliz eta jantoki sozialei dohaintzak egiteko programa bat abian jarritz, aldi berean, egoera ahulean dauden pertsonen laguntzeko. Gure gizarteko gizarte eta kirol

jardueretan presente gaude, eta energia berriztagarrien eta karbono azterna murriztearen aldeko apustua indartzen jarraitzen dugu, azken urteetan lortutako mugarri eta aintzatespenen bidez, 2030 Agendarekin dugun konpromisoa bermatzen baitute.

Eta ibilbide honetan, "Gure ingurunearen ongizatea elikatzea" helburuarekiko konpromisoari eusten diogu, balioa ematen duten hainbat ekintzaren bidez, hala nola: kalitatezko produktuak eskaintzea, tokiko ekonomia babestea enplegua sortuz, eta kontsumitzaileei elikaduran laguntzea. Azken batean, pertsonak zaintzea eta elkarrekin lan egitea, etorkizun bidezkoago eta iraunkorrago baten alde.



Uvesco Taldearen lehendakaria

José Ramón Fernández
de Barrena Bermejo

